

Albisteak

Notariak ezin du eskriturak euskaratzeagatik errekar gurik eskatu

Baztango bailarako bizilagun batzuri errekar guratu zien Notariak eskritura publiko bat euskaraz egiteagatik. Lagunok Iruñako Notari Elkargoaren aurrean errekurritu egin zuten Notariaren minuta; haren erantzuna, berriz, zuzen egindako gainordaina zela.

Baina Erregistro eta Notaritzako Zuzendaritza Orokorrak 1998ko urriko erabaki batean dioenez, batetik, zilegi da eskritura publiko euskaraz egitea; eta bestetik, hizkuntza ofiziala erabiltzeak ezin du inolako gainordainik ekarri. Izan ere, "aukeratutako hizkuntzara itzultzeagatik kobratuko balitzaie, Konstituzioko berdintasuna eta diskriminazio debekua urratuko lirakeke", eta botere publikoek hizkuntza dela-eta gerta daitezkeen diskriminazioak ekiditeko duten obligazioa gogorarazten du.

Eskritura publiko euskara hutsean egitea izanik eskakizuna, Zuzendaritza Orokorrak dio agiria elebietan izatea, bi zutabe erabiliz, alegia, ez dela aukeratzeko eskubide horren kontrako.

Erabakiaren azken puntuak dioenez, egokia litzateke Notariak Nafarroako gune euskaldunetan Nafarroako Gobernuaren itzulpen zerbitzuak erabiltzea, baina ezingo zaio bezeroari horregatik errekar gurik jarri.

Katalan hizkuntza agiri notarialetan

Notariak katalana nola erabili behar duten arautzeko, dekretu bat onartu du *Generalitat*-eko Justizia Sailak (204/1998 Dekretua, DOGC 1998ko abuztuaren 6koa). Arau horrek berak dioenez, 1/1998 Legeak, urtarrilaren 7koak, Kataluniako Hizkuntza Politika arautzen duenak, 14. artikuluan arautzen du agiri publikoetako hizkuntzaren erabilera, eta xedapen hori garatzera dator, hain zuzen ere, *Generalitat*-aren dekretua.

Arau horretan jasotzen denez, agiri notariala agintzen duenak berak aukeratu behar du zein hizkuntzatan egin behar den. Hizkuntzarik aukeratzeko ez bada, orduan katalanez idatziko da; *Generalitat*-eko zerbitzuek, berriz, katalanez agindu beharko dituzte beren agiriak normalean. Bestalde, elebietan jasotako agiria interpretatzean zalantzarik sortuko balitz, katalanezko testua nagusituko litzaioko gaztelerazkoari, baldin eta agiria agindu dutenak Katalunian bizi badira.

Agiria hizkuntza batean idatzi denean, interesatuak beste hizkuntzan egindako kopia bat eska dezake. Kopiaren itzulpena Notariaren ardura izango da, eta ezingo du horregatik ezer ere kobratu.

Erregistro Zibilean abizenak katalanez jartzeko ez da Madriletik pasa behar

Generalitat-aren 208/1998 Dekretuak, uztailaren 30ekoak, agintzen duenez, beste hizkuntza batean jasotako izen eta abizenak katalanera itzultzeko nahiz grafia katalanez idatzeko, nahikoa izango da Erregistro Zibileko enkargatuaren aurrean *Institut d'Estudis Catalans* delakoak emandako ziurtagiri bat aurkeztea, zeinetan abizena katalanez nola idazten den adierazten baiten.

Orain arte, gazteleraz jasotako abizenak katalanera ekartzeko, beharrezkoa zen Justizia Ministeritzak (delegazioz, Erregistro eta Notaritzaren Zuzendaritza Orokorrak) abizenen grafia aldatzeko txostena onartzea, Erregistro Zibileko Erregelamenduaren 206 artikuluari jarraiki.

Generalitat-aren dekretuak 1998ko Hizkuntza Politikarako Legearen 19. artikulua garatzen du. Lege horrek agintzen du, hain zuzen, kataluinarrek eskubidea daukatela beren abizenak katalanez inskriba daitezen Erregistro Zibilean. Eta lege berak 4. xedapen gehigarrian dio abizenen aldaketarako prozedura erregistralak Erregistro Zibileko 54. artikulua ezartzen duenak izan behar duela; alegia, izen propioak hizkuntza ofizialera aldatzeko prozedura bera: Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean eskakizuna egitea, besterik gabe.

Dekretu honen aplikazioa zuzentzeko. Erregistro eta Notaritzaren Zuzendaritza Orokorrak 1998ko abenduaren 11ko Instrukzioa eman du. Zuzendaritza horren esanetan, Erregistroaren arduradunaren aurreko prozedurak bakarrik balio du berez katalanak diren abizenak grafia katalanera ekartzeko, ez ordea katalanak ez diren abizenak katalanez inskribatu ahal izateko; horretarako, oraindik orain, Erregistro Zibileko Erregelamenduaren agindua betez, Madrilerako bidaia egin behar baita.

Espero dezagun Euskal Gobernuak euskaldunon abizenen arazoari aurre egiteko erreflexu nahikoa izan dezan, bidea nondik den esana baita.

Prozedura zibileko idazki ereduak

UZEIk zuzenbidezko idazki erabilgarri horiek itzuli ditu Gipuzkoako Abokatu Elkargoaren ekimenez, eta bi aletan argitaratu dira Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren eskutik. Paperezko formatoaz gain, CD-Romean eta Word 6 motako testuetan ere eskuragai daude.

Azken bertsio horietan, Prozedura zibileko idazki ereduez gain, 1996an kaleratutako *Famili Zuzenbideko Formularioak* ere agertzen dira.

Poliziarako Hiztegia

Arkauteko Euskara Sailean irakasle den Josu Seguroak (Bilbo, 1959) argitara eman berri duen hiztegiak 31.200 sarrera ditu. Bertan elebietan, gazteleraz eta euskaraz, ertzainek beren lan eta agirietan erabiltzen dituzten termino juridikoak eta bestelakoak agertzen dira.

Zazpi urtetan zehar egindako lan honek Euskaltzaindiaren eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren babesa jaso du. Termino juridikoez gain, ertzainek beren agirietan behar izaten dituzten hitzak ere biltzen ditu hiztegiak; *fadurako karramarro*-tik hasi, *lur etan*, *leherdura* eta *zigor-Kode* bezalakoak arte.

Gure agurra Iban Picatoste Arrueri

Euskararen bultzatzaile izan genuen Iban Picatoste Arrue, Gasteizko abokatua eta Arabako Abokatu Elkargoko Euskara Batzordearen sustatzaile eta arduraduna, eta adizkari honetan parte hartzeagatik ere izan zen gure adiskidea.

Abuztuaren 8an zorigaitzoko mendi istripu batean hil zen Gasteizko abokatutzaren munduan euskararen alde hainbat saio egindako lagunaren oroimenez, bihoakie hemendik bere emazte, familia eta lagunei gure dolumina.

Justizia Sailetik zer berri?

ELERIA sustatzeko Hitzarmena Eusko Jaurlaritza eta Eusko Ikaskuntzaren artean

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak lankidetzaren Hitzarmen bat sinatu berri du Eusko Ikaskuntzarekin, Aldizkari honen argitalpenaren inguruan.

Hitzarmenaren Zioen Adierazpenak dioten legez, bi erakundeok arlo juridikoan hizkuntzaren normalkuntzara zuzenduta daude, eta ELERIA aldizkari juridikoa aipatu xedea erdiesteko bitarteko egokia dela adierazten dute, Justiziaren praktikan ikerketa eta hausnarketa juridikoa euskaraz egitea bultzatuz.

Bi erakunde hauen arteko lankidetzan honako alderdi hauek zuzentzen da batik bat: Aldizkaria banatzea bai Departamentuko Zerbitzu Juridikoetan, bai Justizia Administrazioaren arloan lan egin edo lankidetzan diharduten biblioteka judizial eta organismoetan ere; Departamentu berak Justizia eta Zuzenbidearen arloan gauzatutako hausnarketa ekintzak antolatu eta argitaratzea; eta bere finantzaketa.

Justizia Administrazioa hiritarregana hurbiltzeko kanpaina

Duela urtebete inguru, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak Justizia Administrazioaren zerbitzuak hiritarregana hurbiltzeko kanpaina zabal bati hasiera eman zion. Kanpaina honen helburua, hiritarrei ezezaguna eta neurri handi batean iluna iruditzen zaien zerbitzu publiko hori ezagutzera ematea da.

Horretarako lehen pausoa *Justiziaren Oinarrizko Gida* argitara ematea izan zen, bere helburua Justiziaren funtzionamendua hiritarrei azaltzea izanik, zerbitzu hori erabili behar dutenek jakin dezaten nora jo behar duten eta zergatik.

Gida zortzi ataletan banatua dago. Honakoak dira hizkera ulerterraz batean eta grafiko ugariarekin atal bakoitzean azaltzen diren gaiak: Justizia Administrazioan parte hartzen dutenak, judizio-motak, judizio mota bakoitzean erabiltzen den prozedura, auzi mota bakoitza zein epaitegitan egiten den, doako justizia eta Euskal Autonomia Erkidegoan justiziarekin zerikusia duten zerbitzuen helbideak. Azken atalak, berriz, 104 termino biltzen dituen oinarrizko hiztegi bat jasotzen du.

Gidaren 13.000 ale banatu dira dagoeneko. Lehen argitarapena agortu eta bigarren bat kalean da jada. Eskuratu ahal izateko, 902 116807 telefonora hotsegin liteke.

Uda partean, informazio kanpaina honen barruan beti ere, herritarrentzako informazio bulegoak zabaldu zituzten hiru hiriburuetan. Horretaz gain, zenbait ekintza berri dituzte gogoan; eskola eta ikastoletan haurrentzako jardunaldiak, esate baterako.

Justizia Administrazioko euskara normalizatzeko biltzarrak

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren ekimenez, Justizia alorreko hizkera juridikoa bateratzeko talde bat sortu zen duela urte bi. Talde horretako partaideak honakoak dira: Justizia Saileko euskara arduradunak, epaile euskaldunen ordezkariak, abokatu elkargoen ordezkaria, EHUKo eta Deustuko Unibertsitateetako Zuzenbide Fakultateetako ordezkariak, IZOKoak eta UZEIkoak.

Talde horren bileren emaitza ikusgai da jada, dagoeneko itzuli baitituzte prozedura zibileko lehen auzialdiko inprimakiak, administrazioarekiko auzietakoak eta penaleko instrukzioko formularioak. Hurrengo hilabeteetan, erregistro zibileko inprimakiak nahiz lan arlokoak finantzatzeko lanari ekingo diote.

Justiziako pertsonala euskalduntzeko arazoak

Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorra (CGPJ) eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak lankidetzan hitzarmen bat sinatu dute, Justizia Administrazioan hizkuntza normalizatzeko xedearekin.

Epaileen hizkuntza trebakuntzari arreta berezia eskaini zaio hitzarmenean, eta honakoak adierazten ditu, besteak beste: euskarazko ikastaro ohiko eta intentsiboetara joan ahal izango dute; hizkuntzaren 4. ezagutza mailatik aurrera, laneko liberazioak daude aurreikusita; 2. hizkuntza eskakizun maila kreditatutik aurrera, meritua gisa arrezagutzen da euskararen ezagutza (aitzinasuneko zenbait urteren pareko); halaber, Kontseiluak bere laguntza emango die euskara sustatzeko esperientzeari, Justizia Administrazioako Agiriaren Normalizatzeko Batzordeak egindakoa bezalakoari, zeinak jada zenbait urte baitaramatzen lanean.

Hitzarmenaren proposatzailea, aurtengo apirilaz geroztik lanean ari den Justiziako Erakundearteko Batzordea izan zen, Justizia Administrazioari buruzko Jardunaldiak egin ostean eratu zena.

Bibliografia

Monografiak

EUSKO JAURLARITZAko Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, *Prozedura zibileko idazki ereduak*, Eusko Jaurlaritzza, Bilbo, 1998, 183 or.



Justizi Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendaria den Inmaculada de Miguel Herrán andreak liburuaren aurkezpean dioenez, "Gipuzkoako Abokatu Elkargoak, Euskara Batzordearen bitartez, oso tresna baliotsua prestatu du abokatu euskaldunentzat Justiziaren Hizkuntza Normalkuntzari begira, eta ahalegin horrek harridura atsegina sortu du guregan. Irakurleari eskaintzen zaion laburbilduma, prozedura zibil gehientsuenak barne hartzen dituen talde lana da; esparru honetako hutsune bat beteko duen lana, hain zuzen ere, merkatuan ez baitago honelako eskulibururik eukaraz (...)".

ZA, *Entseuikarreen, Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultura Mintegia*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1998.

EUSKO JAURLARITZA, *Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea*, Eusko Jaurlaritzza, Vitoria-Gasteiz, 1998, 272 or.




EUSKO JAURLARITZAko Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, *Justiziaren oinarrizko gida*, Eusko Jaurlaritzza, Vitoria-Gasteiz, 1998, 71 or. "(...) Oinarrizko gida honen premia Justizia Administrazioan parte hartzen duten kolektiboko guztiek sentitzen dute, eta bere asmo bakarra, herritarrek planteatu ohi dituzten hainbat arazo modu argian azaltzea, gure Erkidegoan dauden zerbitzuen berri ematea eta, azken finean, Justizia ezagutzen eta baloratzen laguntzea da".



LEHENDAKARITZA, *Europako Batasunaren Ituna, Europako Erkidegoa Eratzeko Ituna*, HAAE, Vitoria-Gasteiz, 1998, 301 or.

Itzulpenak



LÓPEZ Y LÓPEZ, A., MONTÉS PENADÉS, V., *Eskubide errealak eta ondasun higiezinaren erregistroari buruzko zuzenbidea*, Itzulpenaren koordinatzaileak: A. Lobera eta A. Urrutia. Itzultzaileak: M. Dobarán, J. Etxebarria, K. Isusi, B. Landa, E. Urrutia. Oharrak: A. Atxabal. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997, 1021 or.

URIA, R., *Merkataritzako zuzenbidea*, Itzulpenaren koordinatzaileak: A. Urrutia eta G. Lobera. Itzultzailea: I. Etxebarria. Oharrak: E. Gaminde, B. Landa eta E.



SENEZ, 19. zkia., 1997, 135 or.

EIZIEk Euskal Herriko Unibertsitatearen 1996ko udako ikastaroetarako antolatutako jardunaldietan aurkeztutako hitzaldiak jasotzen ditu SENEZ aldizkariak zenbaki honetan, Euskal Herriko Justizia eta Administrazioiko itzulpenaren inguruan. Honela, bertan euskaraz idatzitako aurki daitezkeen testuak ondorengo hauek ditugu:

AUZMENDI, L., *Administrazioa eta Justiziako euskal itzultzaileak: egoera eta estatus profesionala*, 7-24 orr.; SAN MIGEL, N., *Euskara Justizia Administrazioan: ohar batzuk*, 57-64 orr.; AGIRRE, J., *Euskarazko itzulpen juridiko-administratiboaren balio ofiziala*, 65-77 orr.; LOBERA, A., *Itzulpena Auzitegietan eta Administrazioan*, 81-100 orr.; AGIRRE BEREZIBAR, J.M., *Zuzentzaileen zeregina administrazioiko itzulpengintzan*, 115-126 orr.

Urrutia. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1998, 1299 or.

Rodrigo Uri katedradunaren *Merkataritzako zuzenbidea* eskuliburuaren hogeita bosgarren

argitaraldia itzuli dute, guztiz gaurkotua dagoelarik, non enpresa eta enpresarioaren mundua xehetasunez agertzen den. Gainera, euskarazko termino juridikoen berbategia erantsi zaio.

Artikuluak

JUARISTI, P., *Legebiltzar autonomoak Europan: eskoziarren eta samien kasuak*, Karmel, 221. zkia., 1998, 116-128 orr.



“(…) Oraindik ez da erregio edoeta estaturik gabeko herrialdeen eskumen mailari buruzko gogoetarik egin. Izan ere, erregioen auzia bigarren mailako gaia da Europarentzat. (...) Hala eta guztiz, argi dago gauzak mugitzen ari direla Europa zaharrean. Erabakiak era autonomoan hartzeko gero eta aukera gehiago agertzen ari zaizkie estaturik gabeko herrialdeei; edo, berdin dena, gero eta legebiltzar edoeta administrazio autonomo gehiago sortzen ari dira. (...) Aurki martxan jarri den Eskoziako Legebiltzarraren kasua eta Suedia, Norvegia eta Finlandian hirurogeita hamargarren hamarkadaz geroztik agertu diren samien legebiltzarrak aztertuko ditut; estatu zentralista

klasikoetan kokatuta egonik legebiltzar autonomo mota ezberdinak garatu baitituzte”.

URIBARREN LETURIAGA, P., *Hizkuntz eskubideen deklarazio unibertsala*, Karmel, 222. zkia., 1998, 52-75 orr.



“Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zeneko berrogeita hamargarren urtea gogoratzen dugun honetan, egokitzen jo dugu hainbeste gatazkaren iturburu izan ohi ditugun hizkuntza eskubideak gogora ekartzera. Hainbat herrialdek (Espainiak eta


Frantziak ez dute oraindik egin) onartu eta sinatuak izan ondoren, indarrean dugu dagoeneko Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala. (...) Izan dezagula argitalpen hau gure hizkuntza eskubideak ezagutzeko zein eskubide horiek bete ditzatela etengabeki agintariei eskatzen jarduteko”.

Hizkuntza

ELOSEGI ALDASORO, A., *Hizkera hiperrargiaz, Administrazioa euskaraz*, 22. zkia., 1998, 5. or.



EUSKALTZAINDIA, GORROTXATEGI NIETO, M. (koor.), FERNANDEZ ANAKABE, J.M. (Lag.), *Euskal deituren izendegia*, Justizia Ministeritza; Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila; Euskaltzaindia, 1998, 279 or.



URRUTIA, A., *Euskarazko hizkera juridikoaren ezbaian*, Berba, 7. zkia., 1998.

Bidean dauden Legeak*

1. Eusko Legebiltzarra

2. Nafarroako Parlamentua

2.1. Foru Lege Proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena	Espediente zkoa.
Nafarroako Kontseilua arautzeari buruzkoa	98.4.20	98.5.6	Lege - 5/98
Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbarari buruzkoa	98.4.24	98.5.11	Lege - 6/98
Nafarroako 1997ko Kontu Orokorrei buruzkoa	98.6.11		Lege - 9/98
Nafarroako 1999-2002 Estatistika Planari buruzkoa	98.6.11	98.6.24	Lege -10/98
Administrazio Lokalaren arloko presazko neurriei buruzkoa	98.6.18	98.6.30	Lege -12/98
Hirigintza aprobetxamenduaren arloko presazko neurriei buruzkoa	98.6.22	98.6.30	Lege - 13/98
Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketari buruzkoa	98.7.22	98.9.15	Lege - 14/98
1987ko uztailaren 24ko 144 Foru Dekretu Legegileko (Nafarroako Foru Erkidegoko eta bere erakunde autonomoetako Administrazioetako Tasa, Zerga Ordainarazpen Parafiskal, eta Salneurriei buruzko testu artikulatua onartzen duena) IX. Tituluko II. kapitulua aldatzeari buruzkoa	98.7.27	98.9.15	Lege - 15/98
Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen 16/1986 Foru Legea, azaroaren 17koa, aldatzeari buruzkoa	98.8.10	98.9.15	Lege - 16/98
Nekazaritza Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bateratuko 4. artikuluko 2. zatia aldatzeari buruzkoa	98.9.21		Lege - 17/98

* OHARRAK: Irakurle, lege proiektu hauek 1998ko urriaren 13an zeuden egoeran agertzen dira tauletan. Litekeena da aldizkariaren argitarapenera bitarteko denboran horietakoren bat lege bihurtu izana.

Eusko Legebiltzarra desegin egin zen 1998ko irailaren 1ean. Aldizkariaren erredakzioa itxi dugunean, oraindik hasi gabea da legegintzaldi berria (1998ko azaroaren 30ean). Beraz, oraingo honetan ez dugu izapidetzan dagoen legerik jasotzerik izan.

ITURRIAK: Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko mahaiaik.

2.2. Foru Lege Proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Espedientea
Nafarroako Kontsultarako Kontseiluari buruzkoa	98.3.4	Ciáurriz Gómez jauna eta Errazti Esnal andrea	Pro - 5/98
Gizarte eskubideen karta bat egiteari buruzkoa	98.3.17	Herri Ekimen Legegilearen Batzorde Sustatzailea	Pro - 6/98
Ogasun Lokalei buruzko 2/1995 Foru Legeko 155. artikulua aldatzeari buruzkoa	98.5.21		Pro - 10/98
Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeari buruzkoa	98.6.11	“Ezker Abertzalea”	Pro - 11/98
Euskarari buruzko 18/1998 Foru Legea aldatzeari buruzkoa	98.7.2	Ciáurriz Gómez jauna eta Errazti Esnal andrea	Pro – 12/98
Nekazaritza finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu bateratua onartzen duen 54/1998 Foru Dekretu Legegilea aldatzeari buruzkoa	98.9.16 eta 98.9.25	“Convergencia de Demócratas de Navarra”	Pro – 13/98
“San Francisco Javier” gune psikogeriatrikoaren funtzionamenduaren eraentzari buruzkoa	98.9.18	Ezpeleta Martinez jauna	Pro –14/98
35 orduko lanegunen ezarketaren eta lanorduen banaketaren aldeko neurri publikoei buruzkoa	98.9.21	“Socialistas del Parlamento de Navarra”	Pro – 15/98